Urruti, baina inoiz baino gertuago

Adoptatua

2004an jaioa, Errusian
2006an Gipuzkoan adoptatua

Gaur naizena izateko etxean jasotako balioak oso garrantzitsuak izan dira, nire bizitzan asko lagundu didate. Nire gurasoengandik gauza asko ikasi ditut, eta horiei esker nago gaur nagoen tokian. Hala ere, gaurkoan nire aita gogoratu nahi dut, bereziki. Nahiz eta fisikoki nire ondoan ez egon, nire egunerokoan oraindik nirekin daramat.

Duela bi urte joan zenetik, gure arteko elkarrizketak ez du etenik izan, hilabetero tarte bat hartzen dut hari idazteko eta nire pozak, kezkak eta eguneroko kontuak harekin partekatzeko. Hitz hauek berari eskainitako omenaldi txiki bat dira, urruti dagoen arren, inoiz baino gertuago sentitzen dut nire bihotzean.

Kaixo, aita!

Zer moduz zaude?

Gaur ez dut nire betiko koadernoan idatziko.

Gaur munduari nor zinen erakutsi nahi diot. Ia bi urte pasatu dira, baina nire barnean zurekin hitz egiten jarraitzen dut.

Eskerrak eman nahi dizkizut eskaini eta erakutsi didazun guztiagatik.

Ez ditut inoiz zure azken hitzak ahaztuko, eta beti irribarrez gogoratuko zaitut.

Zure ondoan gauza txikiak eta handiak baloratzen ikasi dut, eta hori garrantzitsua da niretzat.

Eskerrik asko nire babesa izateagatik, nire barreak eta nire malkoak konpartitzeagatik, eta beti hor egoteagatik, hitzik esan beharrik gabe bada ere.

Gaur ez zaude hemen, nirekin, fisikoki, baina nirekin zaude egiten dudan guztian, lortzen ditudan helburuetan eta ikasten dudan gauza berri bakoitzean.

Asko maite zaitut, aita.



Testuaren egileak berak egin du ilustrazioa